

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Trafiko mozketak edo ordezeko bideak datorren astelehenetik aurrera, bi hiletan, N-121-A errepidean, Oieregiko tunelean egindako lanengatik

Auto-ilarak egon daitezkeenez, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak N-1etik joatea gomendatzen du, edo A-15etik ibilbide luzeak egiten dituztenentzat

Ostirala, 2017.eko urriak 13

Oieregiko tunela egokitzeko lan batzuk direla eta, N-121-A errepidean trafiko- eta zirkulazio-mozketak egingo dira, datorren astelehenetik aurrera, bi hiletan; ordezeko bideak emango dira. Hori dela eta, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak beste bide batzuk erabiltzea gomendatzen du ibilbide luzeak egiten dituzten ibilgailuetarako.

Trafiko-mozketen eta semaforo bidez araututako ordezeko pasabidearen helburua Iruñera doan erreian galtzada libre uztea da, zenbait lan egiteko, besteak beste likido toxikoak drainatzeko sistemak eta sute kontrako babesa hobetzea eta tunel barruko argien kableak eta konexioak aldatzea, horiek baitira, hain zuzen, Europako Zuzentarau batek ezarritako baldintzak.

Mariezcurrena eraikuntza-enpresak, 594.026,13 euroekin esleitu zizkieten lanak gauzatu dituenak, semaforo bat jarriko du Irunera doan erreian bi noranzkoetan txandaka igarotzeko. Azken lan-astean errei hori libre utziko da eta kontrakoa itxiko da, tunelaren beste aldean lanak egiteko.

Mozketak egin eta ordezeko bideak emateaz gain, 60 km/h-ko abiadura muga ezarriko da orokorrean, eta 40 km/h-koa lanak egiten diren lekuan.

Illarak egon daitezkeenez, eta Sunbillako tunelean (N-121-Aren 50. kilometroan) lanak ere egiten ari direnez eta zirkulazioa semaforo bidez erregulatuta dagoenez, ibilbide luzeak egiten dituzten ibilgailuei beste bide batzuk hartzea gomendatzen zaie, hala nola A-15 eta N-1.